

Gobeo Bay taldearen (Gasteiz, 2011) "Alfa y Omega" bere lehenengo diskoak, hasiera eta amaiera esan nahi du. Hasiera, lan berri honekin taldea eta izena estreinatzen dituztelako, eta, amaiera, atzean uzten dutelako euren aurreko taldea, Arawak. Talde horretan elkartu ziren Potato taldean jotako Gasteizko zenbait musikari, reggaea beste era batean egiteko asmoarekin. Potato taldearen garai haietatik Okiman eta Julen "Trepí" geratzen dira Gobeo Bay taldean. Okik saxofoia eta teklatuak jo zituen Potato taldearen hasiera-hasieratik, eta Julen 1989an sartuko da tronpetarekin. Arawak taldeak 1996an grabatu zuen "Cuerpo a cuerpo" (Oihuka) bere lehenengo diskoa (dagoeneko Gustavo bateria taldean zegoen), eta 1999an bigarrena, "Sorterrira" (Oihuka) izenekoa, Trepiri bere euskarazko proiektua aurrera eramaten laguntzeko; hots, Trepí eta Arawak. Beranduago heldu ziren Jose eta Jonatan, gitarra eta baxua jotzeko. Horixe da, bada, koruetan, haizeetan eta perkusioetan hainbat laguntza izanda Alfa y Omega diskoa grabatu duen taldea. Ekoizpen lanetan reggaean aditua den Roberto Sanchez aritu da, aspaldiko ezaguna eta lehendik ere eurekin lan egindakoa. Gobeo Bay taldea osatzeko, Imanol eta Monika dira sartu berri dira, teklatueta eta koroetan jarduteko. Beste laguntzaileak ere izan ditu. Jimmy C. (saxo garaia eta tenorea), Dubby Ambassah (perkusioa), Katy Cervantes, Carlos Blázquez "Piti" (koruak).

Gobeo Bay taldearen lehen disko bikoitzaren (Alfa y Omega / Alfa, Omega y Dub) nortasunaren seinaleak "Don Perfecto" lehenengo abestitik ageri dira: oinarri sendoa eta doinu itsasorrak. Batzuetan, gitarren moldaketak erakartzen du Gobeo Bay taldearen arreta, teklatuena hurrengoan, ahots armoniak lagun dituztela, jendeak dantzatzu abes dezan. Horri guztiari laguntzeko, hitz bereziak erabili dira, ironia kutsuarekin. Zain eta kutsu lovers hori sarri agertzen da diskoan, alegia, "Piel de salamandra", "Veo" edo "Cielo gris" abestietan. "Nochemás", bestalde, one drop erako abestia dugu, "Esquiiva", "Andar por andar" edo "Rey" tanke-rakoek, oster, kutsu militanteagoa duten akorde txikiak darabilte, haize tresnek eritimoaren oihalei putz eginez. "Crónica negra, prensa rosa" eta "Oro, verde y rojo" rockers petoak dira, zuzenagoak, jai ukitu nabarmenagoa darienak.

Gobeo Bay taldeak izan du laguntzaile izugarria diskoari soinu nortasuna emateko. Bere eskuari eta ekoizti aurretik edozein ekoizketan bertan egindako lan txukunari esker, Roberto Sánchezek (musikaria eta soinu teknikaria) ezin hobeto irakurri du Gobeo Bay taldearen abestien ADN-a; izan ere, erraz ezagutzeko moduko tradizioaren oinordeko izanagatik berezko kutsua dute, hamarkadetan zehar transmititu diren egiteko moduetan erroturik, baina inoren kopia izan nahi gabe. Egin duen lan bikaina borobiltzeko, Robertok berak egindako Alfa, Omega y Dub nahasketa diskoaz gozatzeko aukera izango dugu argitalpen bikoitz honetan. 2011ko martxo eta uztailen zehar grabatu eta nahastu da A-Lone Ark Muzik Studioan (Cueto, Santander). Gero Euridia estudioetan masterizatu du Ibon Larruceak.

ritxi aizpuru (2012ko apirilaren 3a)

Gobeo Bay reggaearen itsasargia da? Gobeo Bay taldearentzat zer da eta izango da reggaea?

Ez, gu beste txalupatxo bat besterik ez gara gure argiarekin itsaso erdian. Reggaearen uretatik ateratako apurra etxera bueltatzen saiatzen gara, besterik ez. Reggaea guretzat hizkuntza bat da, bere kode propioak dituena. Horren bilakaerari buruz ez gara, batzuetan, ados jartzen, baina bidetik galtzen bazara beti jo dezakezu klasikoetara, jatorri-ira. Ez gara fundamentalistak, gela guztiak koloreatu behar dira, baina egia da baita Reggae etiketapean saltzen den guztia ez dela Reggaea. Baina hori musika guztietan gertatzen da. Urteak daramatzagu Reggae musika jotzen, eta bakoitzean, gusturago moldatzen gara haren barruan. Reggaearen tresna bera oso ezaguna zaigunez, gero eta gehiago eska diezaiokegu, eman ere bai, noski. Etorrizunean bidexka horretatik segitzea da gure asmoa.

Gobeo Bay taldearen hitzak zorrotz idatzitakoak dira. Ironia zehatz-mehatz baten bidez bizitza deskribatzen dute.

Inporta diguten gauzei buruz hitz egitea da gure xedea, baina era bitxi eta originalean egitea gustatuko litzaiguke. Hau, ordea, ia ezinezkoa da, uste duzunean izugarritzko bidezidorra aurkitu duzula, iritsi hara eta autobide arras erabiliarekin baino ez duzu topo egiten. Gainera, letrak guztiak geurekin datoz, ez dago barrua edo kanpoa, Babilonia edonon baitago. Gero, musika lagun dugula, giro jakin bat lortu nahi izaten dugu, bat egitea eta ez bakoitza bere kaxa ibiltzea; hots, musika eta letra ildo beretik doazela.

Gobeo Bay taldeak disko bikoitza ekoizti du eta reggae zaleei dub diskoa oparian eman. Zer dela medio?

Eskuetan edukitzeko aukera izan dugulako, eta azken finean, hori egiteko gogoia genuelako egin dugu, eta Roberto Sanchezek, ekoizlea eta nahasketen egileak era gura zuelako. Potato eta Arawak taldeekin ere erabili dugu dubaren bidea hainbat kantuekin, baina oraingoan dub disko oso bat egitea eskuetan jarri zaigu, kantuek ere badute horretarako osagaia eta aurrera egin dugu nahiz eta batzuetan zerbait korapilatu zaigun. Ez geneukan ezer izkutatzeko, eta bai, dena agerian uzteko. Merezki izan duela uste dugu. Roberto Sanchezen lanaz oso harro gaude, bai diskoan entzungai dagoenaz zein beste lan batzuetan egin duenaz.

Gustavo Salvador: bateria

Jonatan Calvete: baxua

Julen Trepiana: ahotsa eta koruak

Javier Olloki "Okiman": organoa eta teklatuak

Jose Andres Fernandez de Okariz: gitarrak

Gorka Fernandez: tronpeteta eta tronboia

